



kritiken hemeroteka

8.272 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

« [Izpi berrien bila abiatu zen eguzki malinke](#) | [Munduaren gainbeheraz](#) »

Azken kritikak

→ Jausiz Alain Mendizabal Diaz <i>Maddi Galdos Areta</i>
→ Hiriak eta urteak Xabier Montoia <i>Irati Majuelo</i>
→ Bufalo guztiak Juanra Madariaga <i>Paloma Rodriguez-Miñambres</i>
→ Independentzien eguzkiak Ahmadou Kourouma <i>Jon Jimenez</i>
→ Zirriborroak eta gero Askoren artean <i>Asier Urkiza</i>
→ Zirriborroak eta gero Askoren artean <i>Amaia Alvarez Uria</i>
→ Arrakasta Jasone Oso <i>Mikel Asurmendi</i>
→ Maitasun kapitala Karmele Jaio <i>Jon Jimenez</i>
→ Bortxaketa Joyce Carol Oates <i>Ibon Egaña</i>
→ Ibaiertzeko ipuina Oihane Amantegi Uriarte <i>Mikel Asurmendi</i>
→ Ulu egiteko bolondres bila Harkaitz Cano <i>Maddi Galdos Areta</i>
→ Zeru-lurren liburua Jon Gerediaga <i>Asier Urkiza</i>
→ Itzulerak Miren Agur Meabe <i>Nagore Fernandez</i>
→ Independentzien eguzkiak Ahmadou Kourouma <i>Irati Majuelo</i>

Bufalo guztiak / Juanra Madariaga / Erein, 2023

Helduaro lasaian → Paloma Rodriguez-Miñambres / *El Diario Vasco*, 2024-03-02

Juan Ramon Madariaga ezaguna da euskal irakurleentzat idatzi dituen narrazio eta, batik bat, poema liburuengatik. Ibilbide horretan “Eroriaren logika” izan zen bere azken poesia-bilduma. Horrez gain, mendizaleen artean ere badu izenik, hiru zortzimilako igo dituelako, horri buruzko esperientzien berri emanez (“Espedizioa: mendi oren pisua”). Iaz Blas de Otero-Angela Figuera Nazioarteko XV. Saria irabazi zuen “Bufalo guztiak” obrarekin. Bertan gai unibertsalen hautua egiten du olerkariak, hala nola, maitasuna, heriotza, denboraren gaineko kontzientzia eta bizitzak sortzen dituen naufragio pertsonalak.

Alea osatzen duten lau ataletan bi alderdi nabarmendu daitezke; alde batetik, poemetara ekarri duen fisikotasuna, hau da, musuak, usainak, besarkadak eta malkoak azaltzen dira. Beste aldetik, memoria eta ahazturaren arteko hariak uztartzen ditu, dena batera bizitzan kontsumaturik, metaforak egunerokoan aurkituz (egutegia, maindireak, aulkia).

Heldutasuna izango litzateke beste ezaugarri bat. Testuinguru afektiboaren beharra du gizabanakoak baina denboraren poderioz suntsitzen dira harremanak, bakardadera lerratzen garelarik —izaki konplexu zein kontraesankorrak—. Existentzia eta identitatearen gainean, irudiak baliatzen ditu prekarietateaz, zalantzez eta gelditu beharraz, bufaloen antzera —horra hor Euskal Herrian arrotz diren animalia horien erreferentzia izenburuan— lauhazka bizian doalako gizakia, norabidea ondo identifikatzen ez dakiela, munduaren benetakotasuna nola atzeman.

Madariagak gaiak argiro garatu ahala, estiman dituen idazleen hitzak aukeratzen ditu bere poemen tonu-iragarle gisa, esaterako, Anne Sexton, Adrienne Rich, Idea Vilariño, Kirmen Uribe, Anari eta Castillo Suarezenak. Baina beti hunkidura azkendu gabe.

Artxiboa

- 2024(e)ko martxoa
- 2024(e)ko otsaila
- 2024(e)ko urtarrila
- 2023(e)ko abendua
- 2023(e)ko azaroa
- 2023(e)ko urria
- 2023(e)ko iraila
- 2023(e)ko abuztua
- 2023(e)ko uztaila
- 2023(e)ko ekaina
- 2023(e)ko maiatza
- 2023(e)ko apirila

Aurreko urteak ▼

Hedabideak

- Berria (1.234)
- Argia (1.082)
- El Diario Vasco (1.015)
- El Correo (826)
- Gara (657)
- Deia (513)
- Egunkaria (505)
- Aizu! (185)
- El País (151)
- Irunero (122)
- Zeruko Argia (97)
- Egin (77)
- Hegats (62)
- Besterik (1.745)